

## TEKNOLOGIA

## Sare sozialetan egon?



DIANA FRANCO

**O**rain dela urte asko, Audiogalaxy plataformaren elkarrizketa gelari esker Europako pertsona ezberdinekin txateatzeko aukera izan nuen eta metal musika gotikoa ezagutu ahal izan nuen. Zaletu egin nintzen, musikara, baina gehiago beste pertsona batzuen eskutik gauza berriak ezagutzera. Gero txat plataformak eta sare sozialak etorri ziren, eduki bideoak, podkastak...

Hasieran lotsatik, gero bizitzako gertaera gehienak kontatzeko beharretik... orduak eta orduak ematen nituen plataformetan. Egun, mugikorrekin, plataformetan egoteko modua aldatu egin da, ez duzu pantailaren aurrean eserita egon behar, baina beti zaude plataformaren baitan.

2018an sare sozialak elikatzeari utzi nion. Urteekin hobeto ulertu dut nire burua noiz den zaugarria, hobeto ulertu ditut zenbait korporazioren negozio ereduak pertsonen aldetik behar duten arreta maila, eta hobeto ulertu dut zeinen bizitzadibora gutxi dudan aurretik.

Gazteen eta sare sozialen inguruan hausnartzeko talde batera gonbidatu nautte. Taldearen ardura handiena da neska gazteek sare sozialen espazioa bereganatu dezatela. Zergatik espazio hori? Zergatik ez sortu beste espazio batzuk? Gazteek sare sozialak erabiltzen dituztela errealitate bat da. Munduaz duten irudia hortik eraikitzen dute, harremanak sortzeko eta mantentzeko bidea dute. Sare sozialak tresna gisa ulertzen dituzte, benetan beste batzuen esku eta interesen baitan dauden zerbitzuak direnean.

Gizakiok badugu gizartearen parte izatearen ideia bat. Ideia hori ez da berdina denontzat, eta gazteen kasuan badirudi sare sozialak sartzen direla ideia horretan. Beraz, sareak ez erabiltzeak ez dirudi epe laburreko konponbidea eurentzat. Neska gazteak irudi horretan zenbait kalte izaten ari dira. Zelan berregin irudi hori? Zein "bidaia" egin behar dute gazteek plataforma hauen interesak ekidin eta ahalik eta mundu osasuntsuegan sareak erabiltzeko? Gizartearen parte izatearen ideia berregiteak gazteentzako teknologia berregitea al dakar? ●

## NAZIOARTEA



DANIEL LEA/AFP

## All Cops Are Bastards?

AXIER LOPEZ

**R**efuge elkarteko kideek 1.071 sagar ustel jarri dituzte New Scotland Yardeko atarian. Hala, agerian utzi nahi izan dute Londresko Polizia Metropolitanoko (Met) inoiz izan den krisi politikorik handiena: 1.071 polizia ikertzen ari dira ehunka emakumeri eraso egin edo bortxatzeagatik.

David Carricken kasua izan da erbia harrotu duena. 48 urteko polizia horrek epailearen aurrean aitortu du 12 emakumeri 80 sexu-abusuak egin dizkiela. Carrickek 49 delituen erruduntzat jo du bere burua; tartean 24 bortxaketa.

"Polizia izateaz baliatu zen bere biktimak kontrolatzeko eta hertsatzeko", aitortu du Met-eko zuzendaritzak. Londresko Poliziak onartu ez duena da segurtasun indarren arteko ohiko jokaera bat, Euskal Herrian ere ezaguna zaiguna: korporatibismoa eta polizien arteko elkar-babesa. Lankideek '*Bastard Dave*' deitzen zioten Carricki, eta nahiz eta Met-ek eta Britainia Handiko beste hiru Poliziak mota askotako kekek jaso zituzten Carricken jokabide matxista eta bortitzarekin lotuta, Polizian lanean jarraitzeko baimena eman zioten. Azkena, 2021eko uztailan, orduan ere Carrick ikerketapean bazegoen ere, polizia lanetan jarraitu zuen. Eta egin kontu, artean bizirik zen Britainia Handian asaldua eragin zuen beste antzeko kasu bat: 2021eko martxoan

Scotland Yardeko polizia batek, Wayne Couzens, Sarah Everard bortxatu eta hil egin zuela jakin zen.

Carricken kasua ale bat besterik ez da sagardi zabalean. Poliziak berak onartu behar izan du 1.071 agente eta Poliziaren beste funtzionario batzuk ikertzen ari dela, azken hamarkadan gertatutako emakumeen kontrako 1.633 sexu-delitu eta indarkeria kasu-erengatik. "Ez da sagar ustel bat, Polizia osoaren arazo sistemikoa da", salatu du Refuge elkarteko kide Ruth Davisonek, eta gaineratu du, "nola baimendu dute abusu-egile horiek hain denbora luzean botere guneetan egotea?".

Londresko Poliziaren parte izan diren erasotzaile matxisten kopuruak dardarizoa sortzen du, eta gogora ekartzen digu Eliza Katolikoak bere liberatuen artean izan dituen pedera eta bortxatzaile andana. Apaiz eta mojen antzera, poliziek ere boterea baliatu dute zaindu behar omen zuten hori mendeen hartzeko, uniformeak eskaintzen dien usteko zigorgabetasunaz jakitun.

Hala dio sagar ustelak paratu dituen Refuge elkarteak: "David Carricken moduko gizonak lana bilatuko dute Polizian, gehiegikeriak egiteko boterea ematen dielako. Polizian ezarrita dagoen kultura misoginoa da gizon horiek erakartzen dituen. Emakumeak Poliziari abusuak salatu eta seguru sentitu beharrean, emakumeak Poliziaren beldur gara". ●